

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

Oñatiko Udala

Ayuntamiento de Oñati

1998

Vitoria-Gasteiz, 1999ko irailak 24

Vitoria-Gasteiz, 24 de septiembre de 1999



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA	1
ONDORIOAK	2
I. Legezketasuna betetzea	2
II. Kontularitzako alderdiak	4
III. Finantza analisia eta kudeaketaren bestelako alderdiak	5
III.1 Finantza analisia	5
III.2 Kudeaketaren bestelako alderdi batzuk eta gomendioak	8
INTRODUCCIÓN	12
CONCLUSIONES	13
I. Cumplimiento de la legalidad	13
II. Aspectos contables.....	15
III. Análisis financiero y otros aspectos de gestión.....	16
III.1 Análisis financiero.....	16
III.2 Otros aspectos de gestión y recomendaciones	19
ANEXOS	23
A.1 Análisis de la contratación	23
A.2 Cuentas anuales.....	25



SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak bera araupetzen duen 1/88 Legean finkatutakoari jarraiki, Oñatiko Udalak 1998ko urtealdian izan duen ekonomia-finantza jarduerari buruzko txosten hau mamitu du, 1998ko martxoa-1999ko martxoa bitarteko Urteko Lan Programan barne hartu zena.

Lana udal jardueraren gaineko azterketa-diagnostikoa egitea izan da eta honenbestez, azterlanak ez ditu bete-beteko fiskalizazioan gauzatu ohi diren prozedura guztiak egin eta froga laburtuak aplikatu dira, bai luzerari dagokionez, baita horien sakontasunari dagokionez ere.

Hona hemen aztertu ditugun alorrak: antolakuntza orokorra, aurrekontu eta kontularitzako kontrolak, tributuen kudeaketa eta dirubilketan erabili diren prozedurak, langileen kudeaketa, zerbitzu eta obren kontratazioa eta dirulaguntzak ematea.

Txostenak iritzirik ematen ez badu ere Udalak ezargarria zaion lege araudia bete izanari buruz, ezta finantza-auditoretzako iritzirik ere onartutako Kontu Orokorrari buruz, gure azterketan zehar aurkitu ditugun alderdi aipagarriak Ondorioen I. eta II. idazpuruetan bildu ditugu. Ondoren, III.1 idazpuruak udalaren finantza-analisia erakusten du eta III.2 idazpuruak, berriz, udalaren kudeaketa hobetzeko iradokizun osagarriak proposatzen ditu.

Oñatiko udalak 97.12.31n 10.634 biztanle zituen eta bere barne egituran bi erakunde autonomo eta hainbat baltzu publiko biltzen ditu:

- San Martín Egoitza: zaharren egoitza.
- Santa Ana Antzokia: udal zinema/antzokia kudeatzeko (jarduerarik gabe).
- Oñatiko Ur Jauziak, SA (partaidetza goranzkoa da, 1997ko itxieran %67 izatetik, 1999an egingo duen %85era arte; gainerako akzioen jabe Energiaren Euskal Erakundea/EVE da): Indar elektrikoa sortzen du eta, batez ere, Udalari saltzen dio, gero honek banatzeko (sektoreko araudiak jarduera honetarako baltzu bat sortzea eskatzen du eta 1998an Oñargi, SA izenarekin bideratu zen prozesua).
- Oñatiko Etxegintza, SA (urtealdi hasieran %51ren jabe zen, 1998an zehar akzio guztiak bereganatu dituela): baltzu helburua hirigintzako jarduerak dira.
- Bidebarri, SL (%51): Minusbaliatuei enplegu ematea.
- Oñatiko Turismo eta Garapen Agentzia, SA (%100): garapen ekonomiko eta turistikoa bultzatzeko sortua eta 1998an oraindik jarduerarik gabekoa.

Badira beste partaidetza txiki batzuk honako hauetan: Ur Zerbitzuak, SA, Oñatiko Industrialdea, SA, Jakion, SL, Suradesa eta ICTE kooperatiban. Gainera, Deba Garaiko Mankomunitatearen, Deba-Garaiko Mendi Nekazaritza Elkartearen eta Gipuzkoako Ur Partzuergoaren partaide da.

ONDORIOAK

I. LEGEA BETETZEA

Sarreran azaldutako mugekin gauzatu dugun azterketan, honako legehauste hauek aurkitu ditugu:

Aurrekontu eta kontularitzako araudia

- Osokoak 1998ko urrian izaera orokorreko kreditu aldaketa bat baimendu zuen, urtealdi itxieran gastu partidetan sor zitezkeen desbideraketa positibo eta negatiboak berdintzeko, urtealdia itxi ondoren zenbatesten dena. Aribide honek aurrekontu kontrolaren oinarriko printzipioak urratzen ditu (Toki Entitateen Aurrekontuko 4/91 Foru Arauaren 19. art./TEAFA). Helburu bera lortu ahal izango zen kreditu-lotura eta kreditu globala legezko moldeak egoki erabili izan balira.
- Udal artekaritzak ez ditu kontratazio prozesuak fiskalizatzen, ezta gastuak izapidatzean A eta D faseak kontuetaritzen ere, kontrola dagokion ordainagiria iristen denean egiten duela (TEAFAren 40. eta 67. art.).
- Oñatiko Etxegintza, SA eta Bidebarri, SL baltzu publikoen aurrekontu eta finantza egoerak ez dira udalaren ez aurrekontuetan, ezta urteko kontuetan ere jasotzen (TEAFAren 3. eta 62. art.).

Sarrerak

- Udalak ez du derrigorrezko dirubilketa prozedura erabiltzen berezko kudeaketako tributuen ordainagiri ordaingabeak eskatzeko; orobat, ez ditu dagozkion premiabide eta berandutza gairak likidatzen (Toki Ogasunen 11/89 FAren 10. art./TOFA).

Funtzio publikoa

- 98.01.29ko Osokoak 1998rako Arcepafera biltzea onartu zuen, 1997. urtealdiarekiko ordainagiriak %3,02 igoz. Halabaina, 1998rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 65/97 Legearen 18.2 artikulua agintzen du urte horretako ordainagiriez ez luketela %2,1etik gorako igoerarik izan behar 1997ko ordainagirien aldean.

Administrazio kontratazioa

Udalak 13 kontraturen esleipenean erabilitako prozedura aztertu dugu, 1998an 352 milioi pezetako gastuak eragin zituztenak. Hona hemen aurkitutako legehausteak (ikus A.1 eranskina):

- Lau kontratu publizitate eta lehiaketarik egin gabe esleitu dira, 1998an 52 milioi pezetako gastuak eragin zituztenak. Beste 2 kasutan, 58 milioi pezetako gastuak eragin zituztenetan, esleipena hainbat kontratariri eskaintzak egiteko eskaria egin ondoren

gauzatu zen, deialdia publiko egin beharrean (Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko 13/95 Legea/APKL, 11.1 eta 76. art.).

- Kontratu hauetatik bost derrigorrezko espedienterik gabe bideratu ziren, hau da, oinarri-arau tekniko batzuk garatu gabe, administrazio-baldintzen plegurik gabe eta esleipen hartzaileari bere zerga eta tributu betekizunak gaurkotuak dituelako egiaztagiria eskatu gabe. (APKLren 11.2 eta 20.f art.).
- Aztertu ditugun zortzi obra kontratuetatik 7ren egiterapena birplanteaketa egiaztatu gabe hasi zen; datu honek garrantzia berezia du lursailen erabilgarritasuna eta proiektuaren datu fisikoak egiaztatzeko; baita lanei hasiera emateko data ezartzeko ere, epeak bete daitezzen eskatu ahal izateko (APKLren 142. art.).

San Martin Egoitza Erakunde Autonomoa

- San Martin Egoitza erakunde autonomoak egiten duen urteko aurrekontuak ez du Langileari buruzko Eranskina barne hartzen eta toki alorrarentzako onartutako gastuegitura ezberdina du (TEAFAREN 6.1.i eta 10 art. eta hurr.).
- Urteko jarduera ekonomikoa aurrekontu-kontrolerako arauak gorde gabe gauzatzen da eta zehazki, gastuen aurrekontu-izendapenen mugak gorde gabe. Era honetan, lehenengo solairua zahar-berritzeko lanak 44 milioi pta.n esleitu ziren, horretarako izendapenik eduki gabe (TEAFAREN 19. art.).
- San Martin Egoitza erakunde autonomoak likidatzen duen prezio publikoa ez du Udalaren Osokoak oniritzi eta ez da Gipuzkoako Agintaritza Aldizkarian argitara eman (TOFAREN 50. art.).
- Ez dago Erakundearen Lanpostu Zerrendarik, langileriaren beharrian iraunkorrek eta euren egitekoak betetzeko eskakizunak zehaztuko dituen (1998an guztira 20 langilek eskuratu zituzten ordainsariak) (Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 13. art./EFPL).
- Erakundeak aldibaterako kontratatu zituen langileetatik bost, langile finko bihurtu ziren, horretarako hautaketa prozesua deitu gabe (EFPLren 25. art.).
- Hiru espedientetan egindako administrazio kontratazioa aztertzean (ikus A.1 eranskina) horietako bi, 22 milioi pezetakoak, publizitate eta lehiaketarik gabe esleitu zirela egiaztatu dugu eta eskagarria den tramitaziorik gabe: oinarri-arau teknikoak, administrazio baldintzen plegua eta obligazio fiskal eta sozialetan gaurkotua dagoela egiaztatzen duen adjudikatariaren agiria (APKLren 11.1, 11.2 eta 20.f art.).

Beste kontratua lehenengo solairua zahar-berritzeko obrari dagokiona da; kontratu hau 44 milioi pezetan esleitu zen hainbat kontratariri eskaintzak egiteko eskatu ondoren; araudiak, ordea, esleipena lehiaketa publiko bitartez esleitzeko agintzen du (APKLren 76.1 art.).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bestelako alderdiak

- 1993az geroztik ez da udal inbentarioa aldatu, orduan gaurkotu baitzen azkenekoz. Aldi honetan egindako inbertsio garrantzitsuak ikusita bereziki da gomendagarria urtero eguneratzeko lege-mandatu bat betetzea (Ondasunen Araudiari buruzko 1372/86 EDren 33. art.).

II. KONTULARITZAKO ALDERDIAK

Sarreran azaldutako mugekin gauzatu dugun azterketan, honako legehauste hauek aurkitu ditugu, Diruzaintza gaindikina zehaztean eragina izango luketenak:

- 1998ko urtealdiaren likidazioak aurrekontuan eta itxitako aurrekontuan kobratzeko modura 277 milioi pezeta jasotzen ditu, erabili gabeko maileguei dagozkienak; hau dela eta, Diruzaintza gaindikina kopuru horretan doitu beharko litzateke. Gainera, zuzenketa honek ondare kontabilitatearen saldoan ere eragina izango luke.
- Udalak berezko kudeaketako zenbait zergetan ez ditu kobratzeko dauden kopuruak kontuataratzen (Ondasun Higiezinaren eta Ibilgailuen gaineko zerga); ezta Foru Diputazioari kudeatzeko agindu zaion zergan ere (Jarduera Ekonomikoei buruzko Zerga). Nekez kobragarri diren saldoei aurre egiteko zuzkidura ere ez du erakusten. Kontu guzti hauen eragin baterakoa, urtealdi itxieran Diruzaintza gaindikinak gora egitea izango litzateke, zenbatetsi gabeko kopuruan.



III. FINANTZA ANALISIA ETA KUDEAKETAREN BESTELAKO ALDERDIAK

III.1 FINANTZA ANALISIA

Udalaren magnitude nagusiak azken urteetan, onartutako kontuetatik murriztuta, ondoko taulan jaso ditugu:

FINANTZA ANALISIA	Milioi pta.n								Mila pta.n/biztanleko	
	Urtea				Urtea				97ko erref.(*)	
	95	96	97	98	95	96	97	98	Gip	Eusk
1etik 3rako kapit. sarrerak.....	751	854	923	981	70	80	86	91	54	49
4. eta 5. kapit. sarrerak	574	609	708	697	54	56	66	65	64	57
A. Sarrera arruntak guztira	1.325	1.463	1.631	1.678	124	136	152	156	118	106
Langile gastuak.....	286	296	300	313	27	28	28	29	32	32
2. eta 4. kapit. gastuak.....	673	702	714	784	63	65	67	73	45	40
B. Funtzionamendu gastuak	959	998	1.014	1.097	90	93	95	102	77	72
Aurrezki gordina (A. - B.)	366	465	617	581	34	43	57	54	41	34
Finantza gastuak : 3. kapit.....	181	154	101	72	17	14	9	7	5	4
Emaitza arrunta	185	311	516	509	17	29	48	47	36	30
Jasotako kapital dirulaguntzak.....	114	43	142	326	11	4	13	30	7	7
6. eta 7. kapit. inbertsioak.....	477	250	322	901	45	23	30	84	31	23
12.31n diruzaintza gaindikina.....	0	0	329	271	0	0	31	25	29	25
12.31n zorpidetza.....	1.843	1.747	1.587	1.509	172	163	148	141	82	63

(*)Gipuzkoa / Euskadiko 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko Udalen 1997ko batez bestekoak

Biztanleak: 10.634

Udalaren inbertsio-gaitasuna batez ere udalak eskuratutako emaitza arruntak (aurrezki gordina ken finantza gastuak) erabakitzen du. Honi gaineratu behar zaizkio eskuratu daitezkeen kapital-dirulaguntza berariazkoak eta, kasua balitz, zorpidetza handiagora jotzeko baliabidea. Bestalde, Diruzaintza gaindikina ez da finantzaketarako bide egonkorra, izan ere, urteko aurrekontuak egiteratzean desbideraketa iragankorrak erakusten baititu (aurreikusitako sarreren eta egiazko sarreren arteko aldeak, edo gastuak egiteratzean atzeraldiak); hauek guztiak, hasiera batean, geroko urtealdietan gastu mailan aldaketak eginez zurgatuko dira.

Aurrezki gordina

Oñatiko Udalak 1997 eta 1998. urtealdietan biztanleko sortutako aurrezki gordina (57.000 pta./biztanleko eta 54.000, hurrenez hurren) erreferentzia modura hartu ditugun tamaina bereko Gipuzkoako udalen aurrezkiaren gainetik dago (41.000 pta./biztanleko). Osagaien arteko xehekapena aztertu eta honako hau ikusi dugu:

- Sarrera fiskalak oso altuak dira, 1997an biztanleko 86.000 pezeta egiten dituela 54.000 pta.ko erreferentziaren aldean. Soberakin honek 340 milioi pta. inguru egiten ditu eta hein batean, Udalak zuzkitzen duen argindarretik eratorritakoa da (268 milioi pezeta) eta


gainerakoa, gaitasun eta ahalegin fiskal altuari zor zaio (%60ko ahalegin fiskala, maila bereko udalek duten %56koaren aldean, GFDk Gida/Aurrekontu, Finantza eta Tributua, 1998ko abendua, delakoan argitara emandako adierazlearen arabera).

- Langile gastuak batez bestekoari egokitzen zaizkio, erreferentziazko baloreak baino zertxobait baxuagoak izanik: 28.000 pta./biztanleko 1997an, batez bestekoak egiten duen 32.000 pta./biztanleko kopuruaren aldean.
- Zerbitzuetako gastuak (2. eta 4. atalburuak) oso altuak dira, 67.000 pta./biztanleko 1997an, batez bestekoaren 45.000 pta.ren aldean, hau da, 233 milioi pta.ko soberakina; hala eta guztiz ere, gogoan hartu behar da 144 milioi pta. ekoizten duen baltzu publikoari argindarra erostetik datozela eta honenbestez, aurrez adierazi ditugun alde positiboekin berdinkatzen direla.

Zorpidetza

EMAITZA ARRUNTA ETA ZORPIDETZA

Mila pta./bizi



Gipuzkoako taula 1997ko urtealdiari dagozkio

1998ko abenduaren 31n zorpidetza 1.509 milioi pezetakoa da, biztanleko 141.000 pta. egiten dituena, Euskadiko udalerrri guztien artean kopururik altuenetakoa.

Egoera hau eragin du udalak Saltos de Olate, SA zentral hidroelektrikoa erosi izanak, Ur Jauziak, SA izena hartu zuena. Honek, sortzen den indarra Udalarri saltzen dio eta udalak, gerora, azken erabiltzaileei banatzen die. Eragiketa hau bideratzeko 1993an 850 milioi pta.ko mailegua hitzartu zen eta 98.12.31n amortizatzeke zegoen saldoa 578 milioi pezetakoa zen.

Egun interes-tipoak behera egiten ari direnez gero, zorpidetza altua izan arren, finantza gastuek ez dute udal egituraketan garrantzizko tira-birarik eragin, idazpuruko hasierako taulan erakusten den legez.




Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Inbertsioak

INBERTSIOAK

Mila pta./bizt.



Gipuzkoako taula 1997ko urtealdiari dagokio

Argindarra sortzeko egindako inbertsio-ahaleginaren ondorioz, aurreko idazatian aipatu duguna, Oñatiko udalaren inbertsio mailak erreferentzia modura hartutako Gipuzkoako udalen inbertsio mailetara gerturatu dira. Azken hirurteko inbertsioak honako hauek izan dira: Hornidura eta saneamendu sareak hobetzea, Kalebarri eta Kalezaharran zahar-berritze lanak, barianterako ekarpenak eta Bidebarrieta eta Osinurdirin hirigintza jarduerak. Azken hauek 1998ko igoera argitzen dute eta hein handi batean, kostuak jarduera horien onuradun direnei eraginez finantzatzen dira, aurreko taulan ikus daitekeen moduan.

III.2 KUDEAKETAREN BESTE ALDERDI BATZUK ETA GOMENDIOAK AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

Aurrekontuko helburu eta adierazleak

Aurrekontuak ez zituen udal arduradunek lortu beharreko helburuak barne hartzen. Hori aurrekontuan zehaztua jasotzeak jarduera publikoari buruzko informazio hobea ematea esan nahi du eta gerora, kudeaketari buruzko kontrolak egiteko bide ematen du.

Udalak zehaztu egin beharko lituzke urtean eskuratu asmo dituzten helburuak eta horien adierazleak eta dagokion kudeaketa-kontrola ezarri.

Gastu txikien gaineko kontrola

Kontratu nagusienak fiskalizatu eta kontuetaratzean azpimarratu ditugun legehausteez gain, udalak ez du gastu txikiak kontrolpetzeko sistemarik ezarri.

Eskaera txikien gaineko kontrola, lehiaketa bideratzeko mugez beherakoa, ordainagiria iritsi aurretik egin behar da, nolabaiteko garrantzia duten eragiketentzako behinik-behin (esate baterako 100.000 pta. ingurutik gorakoentzat).

Hau lortzeko eskaeren-formulario bat egin beharko litzateke, baimena duten zinegotziek betetzekoa, artekaritzak fiskalizatuko lukeena, onartu eta kontuetaratu (baita izapidatu ere, erosketen kudeaketa zentraltzeko aukera egiten bada).

Ondare-kontabilitatea

Honekin baterako egoera balantzeak ez ditu 1993ko apirilean funtzionarioak Gizarte Segurantzara biltzeak eragindako pasiboak barne hartzen; ezta, pentsioen foru sistema zaharrak zorpetutako pentsio osagarrien pasiboak ere; obligazio horiek guztiak, azterketa gaurkotu bitartez balioetsi beharko ziratekeen.

Udalak aurkeztu zituen Aurrekontu Kontabilitatearen Planeko (AKP) finantza egoerek arauzko hutsak dituzte (esate baterako, guztien erabilerarako higiezinduaren tratamendua) eta egiazko kopuruekiko hainbat desbideraketa (esaterako, zorpidetza kopuruak).

AKPren finantza egoerak berraztertu eta Kontu Orokorrean atal bat bereizi bere saldoen eta aurrekontu kontabilitatetik eratortzen diren saldoen arteko lotura agerraraziko duena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

TRIBUTUEN KUDEAKETA ETA DIRUBILKETA

Dirubilketa-jarduerari buruzko informazioa

Osokoak dirubilketako kudeaketari buruz eskuratzen duen informazioa urteko likidazioan jasotako datuetara mugatzen da.

Komenigarria litzateke Osokoari, bereziki edo kontu Orokorrean jasota, honako hauei buruzko informazioa aurkeztea: jaulkitako ordainagiri/likidazioak, molde ezberdinetako kobrantzak, baliogabetzeak, gerorapenak, errekurtsoak, zor-agiriak, e.a. (Dirubilketa Kontua).

Zehatzago eta Udalean duen garrantzia gogoan hartuta, hirugarrengoei eragindako kopuruei buruzko informazioa aurkeztea, hirigintza jardueretatik eratorritakoak.

LANGILEGOA

Presentziaren gaineko kontrola

Udalak ez du inolako kontrol sistemarik ezarri bertako langileen presentzia fisikoa eta lan-ordutegia betetzen dela egiaztatzeko.

Udalak oinarrizko kontrola ezarri behar du, bai eskuzko sistema erabiliz (izenpetzeko orriak, edo antzerakoak), bai sistema informatiko bidez.

Lanpostuen zerrenda

Udaletxeko funtzionarioen ordainsarien egitura ez da Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 77tik 81era bitarteko artikuluetan finkatutakora eta 207/90 dekretuan ematen zaion garapenera egokitzen. Alderik garrantzitsuena da udalean osagarri guztiak lanpostuaren maila soilik gogoan hartuta ematen direla.

Lanpostuen zerrenda osatu, ordainsari-kontzeptuak ezargarria zaion araudiari egokituz.

Aldibateko langileak

Udalaren aldibateko kontratazioen artean, Euskeraz Baietz programa kudeatzeko kontratatu den pertsonak 1993az geroztik etengabe egin du lan udaletxean, obra edo zerbitzu jakin bat egiteko kontratuak behin eta berriz berrituz.

Obra edo zerbitzu jakin bat egiteko kontratuak behin eta berriz berritzea ez dator bat kontratu mota hau eragiten duten printzipioekin. Udalak aztertu egin



behar du pertsona horrek betetzen dituen egitekoek izaera egonkorra duten eta bertako langileen bitartez egin beharko ote liratekeen (funtzionarioa edo lan kontratupekoa) edo, behar bada, kanpoko enpresa edo profesionalak kontratatuta.

ALDERDI FISKALAK

Gure azterlanean hainbat ordainketa-agindu aurkitu ditugu behar hainbateko justifikaziorik ez zutenak (jaso izanaren agiriak edo ordainketa aginduak), ikastaro, udalekuen antolakuntza, jarduera, eta abarrei zegozkienak, guztira 2 milioi pta.koak.

Udalak ez zizkion Foru Ogasunari aitortu 17 zinegotziei bileretara joategatik egindako ordainketak (12 milioi pta.), ezta jubilazio aurreratuak eragindako kalteordainak (3 milioi pta.), ezta udal langile bati ordaindutako soldatak ere (1 milioi pta.).

Honez gain, hainbat arkitektu eta aparejadoreri ordaindutako ordainsariak euren elkargo profesionaleri ordaindu izan balitzaizkie bezala erregistratzen dira, ez baitute euren izenean lan egiten, haien kontura baizik. Egintza honek hirugarrengokiko harremanei buruzko zerga aitorpenean eragiten du, 347 eredu-orria.

KONTRATAZIOA

Erosketen unitatea

Udalak duen erosketa-bolumenak bide ematen du administrazio-unitate espezializatu bat sortzeko, eskaeren igorpena zentralduko duena eta kontratazioaren araudia gordearazteko ardura ere beretuko lukeena. Beste egiteko batzuk izango lirateke erosketa prozesuak estandar bihurtzea, zentraldutako erosketen esparrua mugatzea, biltegi-beharrizanak balio-neurtzea, e.a.

Erosketen kudeaketa eta kontratazio prozesuak zentraltzeko komenigarritasuna aztertzea gomendatzen dugu.

Bestelako alderdiak

Zubillagako frontoia estaltzeko lehiaketa alferrekoa izan zen bi alditan, eta ez zen hori egiteratzeko eskaintzarik jaso. Horregatik, araudiak baimentzen duen prozedura negoziatua erabili zen (APKLren 141.a art.) eta hainbat eskaintza eskatu ziren aurrekontua %10 igoz. Esleipen hartzailea interesa izan zuen enpresa bakarra izan zen. Gerora, obra-aurrekontua berriz %20 igo zen, frontoiko hormek sendotasunik ez zutela eta.

Kontratarien interes ezak proiektua berraztertzea eragin behar zukeen, bertan egon zitezkeen zehazgabetasunak zuzenduz, gerora, beste lehiaketa prozesu bati ekiteko.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntza izendunak

Dirulaguntzen atalburuko osagai nagusia Aloña Mendi Kirol Taldeari 20 milioi pezetako laguntza ematea izan da, eta horren helburua, berriz, instalakuntzen hobekuntza finantzatzea, kiroldegiaren erabilera eta ekintzak diruz laguntzea.

Dirulaguntza hauek Aurrekontuan izenez esleitzen dira, baina horien kopurua eta egonkortasuna ikusita, xehetasun handiagoz arautzea komeniko litzateke, urteanitzeko ikuspuntua hartuz eta udalak horien gainean egin beharreko kontrola zehaztuz.

Orokorrean, gomendio bera gainerako dirulaguntza izendunei zaie ezargarria.

Dirulaguntzen emakida: agintaraudi arautzailea

Gizarte Ongizatearen saila da eman beharreko dirulaguntzak jendaurrean deitzen dituen bakarra; gainerako sailetan dirulaguntzen banaketa inongo araudirik gabe gauzatzen da.

Udal guztiarentzako dirulaguntzak emateko agintaraudi orokorra mamitu eta, beharrezkoa izanez gero, ematen diren dirulaguntza ezberdinentzako berariazko agintaraudiak.

Bestelako alderdiak

Udalak ez zien onuradunei dirulaguntzak ordaindu aurretik, euren betekizun fiskaletan eta, hala behar izanez gero, Gizarte Segurantzakoetan eguneraturik zeudelako egiaztagiria eskatu.

BESTELAKOAK

Santa Ana Antzokia Erakunde Autonomoa

Santa Ana Antzokia Erakunde Autonomoak ez du jarduerarik, zine/antzokiko aretoaren kudeaketa kanpoko enpresa bati esleitu baitzaio.

Jarduerarik ez duen zeinahi erakunde autonomo edo baltzu publiko desagertarazi egin behar da.



INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/TVCP, conforme a lo establecido en la Ley 1/88, reguladora del mismo, ha realizado este informe sobre la actividad económico-financiera del ayuntamiento de Oñati en el ejercicio 1998, incluido en el Programa Anual de Trabajo marzo 1998-marzo 1999.

El trabajo realizado ha consistido en un análisis diagnóstico de la actividad municipal, por lo que debe señalarse que no se han seguido en la revisión todos los procedimientos propios de una fiscalización completa, habiéndose aplicado pruebas abreviadas, tanto en su extensión como en los alcances de las mismas.

Las áreas analizadas han sido las siguientes: organización general, controles presupuestarios y contables, procedimientos aplicados en la gestión y recaudación de tributos, gestión de personal, contratación de servicios y obras, y concesión de las subvenciones.

Aunque el informe no emite una opinión sobre el cumplimiento por el Ayuntamiento de la normativa legal que le es aplicable, ni una opinión de auditoría financiera sobre la Cuenta General aprobada, los aspectos parciales encontrados en la revisión se describen en los epígrafes I y II de las Conclusiones. A continuación, el epígrafe III.1 presenta un análisis financiero del Ayuntamiento, y el III.2 propone una serie de sugerencias complementarias para mejorar la gestión del mismo.

El ayuntamiento de Oñati tenía a 31.12.97 a una población de 10.634 habitantes, e integra en su estructura dos organismos autónomos y varias sociedades públicas:

- San Martín Egoitza: residencia de ancianos.
- Santa Ana Antzokia: para la gestión del cine/teatro municipal (sin actividad).
- Oñatiko Ur Jauziak, SA (la participación es creciente, desde el 67% al cierre de 1997 hasta el 85% que se alcanzará en 1999, siendo el Ente Vasco de la Energía/EVE titular del resto de las acciones): produce energía eléctrica que vende, fundamentalmente, al Ayuntamiento, que la distribuye (la normativa sectorial exige crear una sociedad para esta actividad, proceso iniciado en 1998 bajo la denominación de Oñargi, SA).
- Oñatiko Etxegintza, SA (51% al inicio del ejercicio, haciéndose con la totalidad de acciones durante 1998): su objeto social son las actuaciones urbanísticas.
- Bidebarri, SL (51%): empleo de minusválidos.
- Oñatiko Turismo eta Garapen Agentzia, SA (100%): creada para el desarrollo económico y turístico, y todavía sin actividad en 1998.

Existen otras participaciones minoritarias en Ur Zerbitzuak, SA, Oñatiko Industrialdea, SA, Jakion, SL, Suradesa, y en la cooperativa ICTE. Además, forma parte de la Mancomunidad del Alto Deba, Deba-Garaiko Mendi Nekazaritza Elkartea y del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

CONCLUSIONES

I. CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción, se han detectado los siguientes incumplimientos de legalidad:

Normativa presupuestaria y contable

- El Pleno autorizó en octubre de 1998 una modificación de créditos de carácter genérico, para compensar las desviaciones positivas y negativas en las partidas de gastos que se produjeran al cierre del ejercicio, y que se cuantifica tras el cierre del mismo. Esta actuación incumple los principios básicos del control presupuestario (art. 19 de la NF4/91 Presupuestaria de las Entidades Locales/NFPEL). El mismo objetivo hubiera podido conseguirse a través de una adecuada utilización de las figuras legales de la vinculación de créditos y del crédito global.
- La intervención municipal no fiscaliza los procesos de contratación, ni contabiliza las fases A y D en la tramitación de los gastos, iniciándose el control cuando llega la factura correspondiente (arts. 40 y 67 de la NFPEL).
- Los presupuestos y estados financieros de las sociedades públicas Oñatiko Etxegintza, SA y Bidebarri, SL no se incluyen ni en los presupuestos ni en las cuentas anuales del Ayuntamiento (arts. 3 y 62 de la NFPEL).

Ingresos

- El Ayuntamiento no aplica el procedimiento de recaudación ejecutiva para exigir los recibos impagados de los tributos de gestión propia, ni liquida los recargos de apremio y demora procedentes (art. 10 de la NF 11/89 de Haciendas Locales/NFHL).

Función pública

- El Pleno de 29.01.98 aprobó la adhesión al Arcepafe para 1998, con un incremento de las retribuciones respecto de 1997 del 3,02%. La Ley 65/97 de Presupuestos Generales del Estado para 1998, en su artículo 18.2, establece que las retribuciones de ese año no debían experimentar un incremento superior al 2,1% con respecto a las de 1997.

Contratación administrativa

Hemos revisado los procesos de adjudicación por el Ayuntamiento de 13 contratos que generaron gastos durante 1998 por 352 millones, detectando los siguientes incumplimientos (ver anexo A.1):

- Se han adjudicado 4 contratos sin publicidad ni concurrencia, que han supuesto 52 millones de ptas de gasto en 1998. En otros 2 casos, que originaron gastos por 58 millones, la adjudicación se pudo hacer tras solicitar ofertas a varios contratistas, cuando



debió de darse publicidad a la convocatoria (Ley 13/95 de Contratos de las Administraciones Públicas /LCAP, arts. 11.1 y 76).

- Cinco de estos contratos se tramitaron sin el preceptivo expediente, es decir, sin confeccionar unas bases técnicas, sin un pliego de condiciones administrativas, y sin exigir al adjudicatario la certificación de estar al corriente de sus obligaciones fiscales y tributarias (arts. 11.2 y 20.f de la LCAP).
- La ejecución de 7 de los ocho contratos de obra analizados se inició sin formalizar la comprobación del replanteo, de particular importancia para comprobar la disponibilidad de los terrenos y los datos físicos del proyecto, así como para fijar la fecha de inicio de los trabajos a efectos de exigir el cumplimiento de los plazos (art. 142 de la LCAP).

Organismo autónomo San Martín Egoitza

- El organismo autónomo San Martín Egoitza confecciona un presupuesto anual que no incluye el Anexo de Personal, y que tiene una estructura de gastos diferente a la aprobada para el sector local (arts. 6.1.i y 10 y ss. de la NFPEL).
- La actividad económica anual se desarrolla sin respetar las normas de control presupuestario y, en particular, la limitación de las consignaciones presupuestarias de gastos. Así, se adjudicaron en 44 millones de ptas las obras de reforma de la primera planta, sin que existiera consignación para ello (art. 19 de la NFPEL).
- El precio público que liquida el organismo autónomo San Martín Egoitza no ha sido aprobado por el Pleno del Ayuntamiento, ni publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (art. 50 de la NFHL).
- No hay una Relación de Puestos de Trabajo del Organismo, que debe definir las necesidades permanentes de personal y los requisitos para el desempeño de sus funciones (en 1998, percibieron retribuciones un total de 20 trabajadores) (art. 13 de la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca/LFPV).
- Cinco de los contratados temporales del organismo pasaron a ser trabajadores fijos, sin la convocatoria de un proceso selectivo (art. 25 de la LFPV).
- En la revisión de la contratación administrativa realizada sobre 3 expedientes (ver anexo A.1), hemos comprobado que 2 de ellos, por 22 millones de ptas, se adjudicaron sin publicidad ni concurrencia, y sin la tramitación exigible: bases técnicas, pliego de condiciones administrativas, y certificado del adjudicatario de hallarse al corriente en sus obligaciones fiscales y sociales (arts. 11.1, 11.2 y 20.f de la LCAP).

